

ELEKTRA ETA ROCA ENPRESEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Elektra eta Roca enpresak Donostian geratzeari buruzko MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzaren Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen buruzko Batzordean 2016ko maiatzaren 16ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko legegaldian, 2013. urtean, Udal Gobernuak Zardoya-Otis enpresarekin hartu emanak hasi zituen, gure hirian beren produkzioak jarrai zezan. Hiru urte eta gero, Udal Gobernuak akordioa itxi egin du. Gaur egun, enpresen deslokalizazioa lehen mailako arazoa da.

Antzitako plan berezia dela-eta, Roca eta Elektra enpresek beren eraikuntzak utzi beharko dituzte, eta plan bereziaren promotoreek beste lurzoru bat eskainiz edo dirutan konpentsa ditzakete hauek galtzen dituzten instalazioak. Gure ustez, Donostiako Udalak bi enpresa hauek gure hirian jarrai dezaten apustua egin beharko luke.

Jakin badakigu egoera eta errealitate desberdinez ari garela, baina Udal Gobernuak apustu irmoa egin behar du.

Apirilean, gai honi buruz, batzordean, galdera bat aurkeztu genuen, baina ez genuen taxuzko erantzunik jaso; hau da, Udal Gobernuaren benetako lanketa falta agerian geratu zen.

Hori dela-eta hilabete honetan aurkeztutako interpelazioan, Ernesto Gasco jaunak prozesua luzea izan daitekeela eta lehen kontaktuak eman direla esan zuen. Besterik ez.

Honegatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak ondorengo KONTROL MOZIOA aurkezten du.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

MOZIOA

Udalbatzak irmoki eskatzen dio Udal Gobernuari Elektra eta Roca enpresak gure hirian gera daitezen ahalegin guztiak egin ditzala, eta hori lortzeko emandako pausoak udal talde guztiekin parteka ditzala.

Donostian, 2016eko maiatzaren 20an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia